



INIGO AZKONA

KUMEAK. Azken aldian Capegabiren txakurtegira kumeak ailegetan dabilz. Gorakadea izan dauen beste txakur mota bat kaza txakurrena da. Alkarte horretako arduradunek dinoenez, benetako gorakadea irailean egon da.

Txakur bi jaso ditue egunero Artxandan

IRAILEKO GORAKADEA. Iraileko lehenengo hamabost egunetan ikaragarri igon dau abandonautako txakurren kopuruak Capegabiko zentroko arduradunek jakinarazo dabenez

TXAKURREN HOTELAK

Neurriak badagoz, baina abandonatzen ditue

Txakurrentzat eta katuentzat euren jabeak oporretan doazenerako hotelak be egoten dira gaur egun. Hotel horreek txakurak abandonetako bide bat izan leitekezan jakin gura izan dau *Bizkaia*-k.

«Ez da oso normala izaten pertsona batek txakurra edo katua hotelen baten itxi eta gero bila ez etortea. Batetik txakurra hotelera ekartea ebatzi dauen pertsonak normalean txaku-

rra nahiko ondo jagoten dauelako», azaldu deutso *Bizkaia*-ri Javier Perezek.

Beste alde batetik kontrol neurriak gogortu egin dira azken urteetan hoteletako arduradunek jakinarazo dabenez. «Txipa daukien animaliak baino ez dira hartzen eta jabeen helbideak eta beste datu batzuk hartzen doguz».

Neurriak neurri beti izaten dira kasuak. «Aurtent bertan kasu bat izan dogu. Helbide faltsu bategaz itxi dau hemen txakurra, eta ez da bila etorri. Baina uste dogu bilatu dogula jabea». Udan 170 txakur inguru euki ditue, eta bakararren bila ez dira joan. Ez da normala izaten, baina hoteletan be izten ditue txakurrak.

Iñigo Olabarri | BILBO

Txakurak abandonetako sasoiu udea izaten eizan. Orduantxe agertzen ziran telebistan-eta *Berak ez leuke egingo* eta berorren moduko mezuak. Ez dira behar diran herritarrengana ailegetan, antza. Izan be, oraindino txakurrak bide baztarrean izteko ohi-turea ez da galdu. Capegabi alkarteak Artxandan daukan animaliak hartzeko zentroan bagilean, garagarrilean, eta abuztuan 71 txakur eta 12 katu jaso ditue.

Bilboko Udal Txakurtegia bagiletik irail erdi aldera 75 txakur jaso ditue. Udal txakurtegi-k daturik harrigarrienak katuei jagokez, izan be, 65 jaso ditue udan, baina horreetatik 42 abuztuan ailegau dira txakurte-gira.

Datuok aurreko urteetakoa-kaz alderatu ezkeru ez da salto handirik igarri, harritu egin ditu datu horrek Capegabikoak. Udal txakurtegia be aurreko urteakaz alderatuta ez dala go-

rabehera handirik izan dinoe.

Halandabe iraileko datuak dira orain arte harrigarrienak Itziar Isasik *Bizkaia*ri adierazo deusanez. Garagarrila eta abuztuan izan ez dan gorakadea irailan izan da. Hilaren 15era arte 28 txakur jaso ditue euren egoitzan. Askotxo Bilborako.

Gorakadea azaltzeko teoriak

Itziar Isasik dino jasoten dituen txakurretako batzuk ibilera bitxia egiten dabela. Teoria horrek azalduko leuke abuztuan eta garagarrilean baino txakur gehiago irailean agertzea. «Pertsona batek bide baztarrean izten dauen txakurra, herri batera ailegau leiteke, eta han oporretan dagoan familia batek hartu. Irailean familia bere herrira joango da barriro eta orduan barriro be abandonatuta geratzen da txakurra. Guk uste dogu hori izan leitekela irailean horrenbeste txakur agertzearen arrazoa».

Hiru hilabete be bete ez dituen kumeak gero eta gehiago